

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#) [Onartu](#)

2016-10-17

Nork: [Estitxu Zabala](#) -Urr 12, 2016

SAGARDO EGUNAREKIN AGURTUKO DIRA MARTUTENENKO JAIK



Argi dago Sagardo Eguna bihurtu dela Martuteneko jaietako erakargarri nagusia, eta gaur izango da, jaien azken egunarekin bat eginez, 12:30ean. Ikastolako jolastokian, sagardo dastaketa eta bertako produktuen eta artisauren azoka egingo dituzte.

Albada Zarra, Okendotegi, Apaola eta Agirretxe baserrietako produktuak egongo dira salgai, eta sagardotegi hauetako zukua egongo da: Sarasola, Otxua Enea, Bereziartua, Egiluze, Alorrenea, Astarbe, Barkaiztegi, Petritegi, Gartziategi, Lizeaga eta Rezola. Jai batzordekoek nabarmendu dute sagardogileak beraiek sagardoa botatzen duten jai bakarra direla Donostian; eta hori Kristina Arzallusi esker dela.

ELKARTASUN PINTXOA

Guztira, 1.200 edalontzi eta 1.300 sagardo botila enkargatu dituzte; 1.000 lagun baino gehiago espero baitituzte. Horretaz gain, 800 txorizo pintxo prestatuko dituzte; eta Intxaurrendoko Zaporeak proiektuari laguntzeko, 600 bakailao pintxo salduko dituzte. Hain zuzen, elkartasun pintxoak izango dira bakailao pintxoak, eta bildutako dirua Greziako Chiosen dauden errefuxiatuei elikagaiak emateko izango da. Zaporeakeko kamisetak ere salgai jarriko dituzte, eta borondatezko diru laguntza txikiak ematea egongo da, eltzetxo bidez.

Bakailaoa pil-pil erara elkarteen arteko IX. gastronomia txapelketa egingo dute sagardo egunaren bueltan. Zazpi bikotek hartuko dute parte, eta irabazleek txapela eta bi lagunentzako afaria irabaziko dute Barkaiztegin; bigarrenak, bi lagunentzako afaria Ali Oli jatetxean. Arratsaldean, Kutxi Romeroren akustikoaren txanda izango da, 18:00etatik 20:00etara. Ondoren, Iruñeko Motxila 21ek kontzertua eskainiko du. Gogoz daude, Martutenen, aurreko bi urteetan etortzekoak ziren arren, ezbeharren bat izan baitute. «Aurten badatoz!», diote jaietako egitarauan.

Martuteneko jaiak ez dira Aste Nagusia, baina su artifizialak izango dituzte festetako azken egunean, 21:30ean, hirugarren urtez.



JAIK MARTUTENE



ESTITXU ZABALA

Iruzkina bat

EGIN IRUZKIN BAT



Sagardo Eguna ikastolako jolastokian egingo dute, ohi bezala. (Argazkia: Estitxu Zabala)



AZKENAK



EUSKARAZKO ZINEMAREN GORDAILUA
IZANGO DA GANBARA



DOLORES REDONDO IDAZLE
DONOSTIARRAK IRABAZI DU PLANETA
SARIA



SAGAR FESTA OSPATUKO DUTE KATXOLAN



LARRATXOKO JOLASTOKIKO MURALA
MARGOTZEKO DEIA EGIN DUTE

Izena *

Email *

Website



CAPTCHA Code *

BIDALI IRUZKINA

Sagardo eguna azteazkena urriak 12 Martutenen | Angel Etxeberria SL

12 urria 2016 at 11:18 - Reply

[...] Sagardo eguna urriak 12 Martutenen. Irutxulo. [...]

Nor Gara | Kontaktua | Iragarri | Tel: 943 467236 |
Cookie politika | Lege Oharra | Pribatutasun Politika

Gipuzkoako
Foru Aldundia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastian
Euzko Gubirua



DONOSTIAKO HEDABIDEAK S.L. • WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU CREATIVE COMMONS ERABILERA LIZENTZIAREKIN.

